

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2020-11-10(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

10-BERMEOKO MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN EUSKARAZ IPINITAKO ERROTULUAK FINANTZATZEKO 2020. URTERAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Xedea

Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2020. urterako diru laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Berariazko Oinarri horien artean, Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2020. urterako diru laguntzenak onartu ziren. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Argudioak

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Diru laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 2019/1.479 Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzarrak, bozketa nominatiboa egin ondoren, aho batez, honako hau ERABAGI dau:

LEHENENGOA: Bermeoko Merkataritza establezimenduetan euskaraz ipinitako errotuluak finantzatzeko 2020. urterako diru laguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 8an argitaratutako oinarrien arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40005429600B4J2R7X2Z9R1

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 12/11/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 12/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/11/2020
11:47:49

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0208

Fecha: 22/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia




BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basera bideratzeko agindua ematea Ekonomia Sailari.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren Webgunean deialdi honen publizitatea txertatzeko agindua ematea ATB sailari.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

O rri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40005429600B4J2R7X2Z9R1

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 12/11/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 12/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/11/2020
11:47:49

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0208
Data: 22/10/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

